

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak aurrera egin du kutxa erregistratzaileen zerga-kontrolerako Ticket BAI proiektuan, iruzurraren aurkako borrokarekiko konpromisoaren harira

Nafarroako Zerga Ogasunak hitzarmena sinatuko du Euskal Autonomia Erkidegoarekin eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiekin batera azterlan teknologikoa egiteko

Asteazkena, 2018.eko azaroak 21

Nafarroako Gobernuak baimena eman dio Nafarroako Zerga Ogasunari Euskal Autonomia Erkidegoarekin eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiekin partaidetza-hitzarmena sina dezan, Ticket BAI proiektua garatzeko asmoz.

Baterako proiektu hau, bost administrazioek 2016an eraturako [lantaldetik](#) sortu da, eskudiru asko erabiltzen duten jarduera-sektore jakin batzuetako salmenta-puntuetakoko terminalen nahiz kutxa erregistratzaileen gaineko kontrola areagotzeko xedez. Iruzur fiskalaren aurkako borrokari atxikitako neurri hau Europako beste zerga-agentzia batzuek ezarri dute, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) gomendioz. Nafarroak aurtengo ekitaldirako lan-ildotzat erabiltzen du indarrean dagoen [Zerga Kontrolerako Planaren](#) barruan.

Hitzarmen honen bitartez, Nafarroak kontrol zerbitzu hau abian jartzeko soluzio teknikorik egokienaren bilaketan parte hartuko du Euskal Autonomia Erkidegoarekin eta horren hiru foru aldundiekin batera. Emaizak bost administrazioen artean partekatuko dituzte, horretarako sortutako jarraipen batzordearen bitartez.

Azterlana kontsultoretza independente baten laguntzaz egingo da eta 190.000 euro inguruko kostua izango du. Kopuru honi, Ticket BAI / Ticket SI-BAI marka Europar erregistratzeak balio izan duen 5.000 euro inguruko zenbatekoa gaineratu behar zaio. Administrazio bakoitzak kostu horretan duen partaidetza hitzarmenean zehaztutako ratioen arabera kalkulatu da, eta Nafarroako Zerga Ogasunaren kasuan, 38.927,56 euro ordaindu behar ditu, guztizko kostuaren % 20.

Kutxa erregistratzaileetan instalatzeko moduko soluzio tekniko hauek Austria, Suedia eta Portugal bezalako herrialdeetan ezarri dira, eta salmentako terminalen kontrol zehatzagoa egitea ahalbidetzen dute, zerga-informazioaren transmisioa errazteaz gain. Iruzurraren aurkako borrokaren efikazia eta eraginkortasuna hobetzeko zerga-kontrolerako bide berriak bilatzeko duen erantzukizunaren harira, Nafarroako Zerga Ogasunak gogoratu nahi du zergak saihestea baliabide publikoak murriztu eta zuzentasun printzipioa hausten duen gaitz soziala dela.

